# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2284

*722/2013 EBAZPENA, apirilaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Ildefonso Martínez de la Fuente Martínez jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari zientifiko kargutik kentzen da, berak hala eskatuta.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 28ko 308/2011 Ebazpenaren bidez, Ildefonso Martínez de la Fuente Martínez jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari zientifiko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ildefonso Martínez de la Fuente Martínez jauna Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari zientifiko kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta emandako zerbitzuak eskertzea. Ebazpen hau 2013ko apirilaren 17tik aurrera jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Interesdunari eskatzea txostena aurkez dezala Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean gaur egun aurrera eramaten ari diren ikerketa-proiektuen egoerari buruz, ebazpen honen edukiak modu negatiboan eragin diezaien saihestea eta horien jarraipena oso-osorik bermatzea helburu. Txostena aurkezteko hiru egun balioduneko epea izango du, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 17a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.